

## Mikromakinak, krisitik ateratzeko aukera?

2013/05/07


Krisiak gogor astintzen gaituen garai honetan elkarrekin lana egin beharra daukagu, desadostasunak alde batera utzi eta krisitik ateratzeko balioko duten proposamen errealak bilatzeko.

Duela urte batzuetatik, Mondragon Unibertsitatea mikrofabrikazioaren eta DIN A3 folioen inguruko tamaina duten neurri txikiko makina erremintak eraikitzearen aldeko apustua egiten ari da. Espero izatekoa da, tamaina txikiko piezak ekoizteko (hortzetako implanteak, lab-on-a-chip... ) bere tamainarekin bat datozen makinak behar direla, eta gainera, hainbat abantaila eskaintzen dituela horrek: energia aurreztea, zehaztasun handiagoa eta espazioaren erabilera eraginkorra.

Mikel Carrascok, Goi Ingeniaritzako bere karrera amaierako proiektuan, unibertsitatean bertan garatutako DIN-A3 tamainako ultradoitasunezko tornu baten funtzionamendua ikertu eta zehaztu du, Endika Gandariasen gidaritzapean eta Patxi Aristimuño eta Javier Aperribayren laguntzarekin. Lan horrek, makina mota berri horrek dituen aukera onak berresten ditu, eta orain, lan horretan jasotako ezagutza Euskal Herriko enpresa baten esku utzi dute, balizko merkaturatzerako. Gure industria zaharberritzeko arlo berri bat irekitzen ari ote da? Denborak esango du.

Gaur egun, 23 urteko gazte ermuar honek makina erremintak sensorizatzen liderra den enpresa batean egiten du lana, eta ziur gaude etorkizunean albiste on gehiago emango dizkigula.

Fabrikazio Ingeniaritzako Elkartek Euskal Herriko Unibertsitateko ikasle baten lana ere lan onenen artean aitortu du, eta biek jasoko duten saria datorren ekainaren 26-28an Zaragozan egingo den Mesic-en nazioarteko kongresuan.



Mondragon Unibertsitateko  
Mikromekanizatua